
KANPO errotulazioa
rotulación EXTERIOR
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EAEko ikastetxeak
Centros educativos de la CAV

IKASTETXEEN ERROTULAZIOA
ROTULACIÓN DE CENTROS EDUCATIVOS

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Izenburua: Ikastetxeen Errotulazioa (Zabalkunde-lanak 37)

Egileak: Carmen Lobo, Iñaki Artola eta Joxe Mari Berasategi
Eskerrik beroenak lagundu diguten lankide guztiei,
bereziki Iñigo Olabarria, Ibon Olaziregi,
Pili Sánchez eta Mikel Zalbideri

Argitaraldia: 1.a, 1995eko apirila

Ale kopurua: 2.500

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Composiciones RALI, S.A.
Costa, 12-14, 7ª – 48010 Bilbao

ISBN: 84-457-0591-1
L.G.: BI-748-1995

AURKIBIDEA / ÍNDICE

A. KANPO-ERROTULAZIOA 1
ROTULACIÓN EXTERIOR

A1. Sistema aukeratzeko irizpideak 9
Criterios para la elección del sistema

A2. Aukeratutako sistemaren deskribapena 15
Descripción del sistema adoptado

A3. Anagrama eta Eusko Jaurlaritzaren «A» marka 21
Anagrama y marca «A» del Cobierno Vasco

A3.1 Materialak 22
Materiales

A3.2 Koloreak 24
Colores

A3.3 Tipografia 26
Tipografía

A3.4 Nenrriak eta lekutzea 26
Dimensiones y ubicación

A4. Ikastetxearen izena: izen berezia eta izen generikoa 29
Denominación del centro: denominación propia y denominación genérica

A4.1 Materialak 33
Materiales

A4.2 Koloreak 33
Colores

A4.3 Tipografia 33
Tipografía

A4.4 Neurriak 35
Dimensiones

A4.5 Lekutzea 39
Ubicación

A4.6 Parekatzeak 43
Emparejamientos

A5. Irakasmailak 47
Niveles educativos

A5.1 Materialak 48
Materiales

A5.2 Koloreak 48
Colores

A5.3 Tipografia 49
Tipografía

A5.4 Neurriak..... 49
Dimensiones

A5.5 Lekutzea..... 50
Ubicación

A5.6 PATak, Ikuskaritzak…..... 51
COPs, Inspecciones…

A5.7 Udalaren aipamena..... 51
Mención del ayuntamiento

A6. Kokaerak, materialak eta finkatzeko sistemak..... 53
Ubicaciones, materiales y sistemas de fijación

A6.1 Kokaera aukeratzeko irizpideak..... 53
Criterios para la elección de la ubicación

A6.2 Oinarrizko inaterialak..... 54
Materiales básicos

A6.2.1 Bandeja..... 54
Bandeja

A6.2.2 Markoa..... 56
Marco

A6.2.3 Atzeko itxitura..... 57
Cerramiento posterior

A6.3 Kokaerak eta material osagarriak..... 58
Ubicaciones y materiales complementarios

A6.3.1 Horman (kokaera standarda)..... 58
En fachada (ubicación standard)

– Errotulu standarda..... 58
Rótulo standard

– Errotulu txikia..... 61
Bótulo pequeño

A6.3.2 Berdegunean..... 64
En verdín

A6.3.3 Hesiaren kaleko aldetik, hesiari berari lotuta..... 69
En valla, por la parte exterior

A6.3.4 Hesiz gain..... 71
Elevado sobre valla

A6.3.5 Estalpe gainean..... 75
Sobre marquesina

A6.3.6 Bestelako kokaerak..... 79
Otras ubicaciones

A6.4 Errotulu osagarria..... 79
Rótulo complementario

A6.5 Adibideak 81
Ejemplos

Errotulatutako ikastetxeak 87
Centros rotulados

Ikastetxeen izena finkatzeko irizpideak 89
Criterios para determinar la denominación de los centros

Izen zerrenda 97
Listado de denominaciones

A1. SISTEMA AUKERATZEKO IRIZPEDEAK

Euskal Autonomi Elkarteko herri-ikastetxeak, kanpo-errotulazioari zegokionean, oso egoera desberdinetan zeuden luze-zabaleko errotulazio-planei ekin aurretik:

– Kanpo-errotulurik gabeko ikastetxeak.

– Hizkuntza bakarrean errotulatutako ikastetxeak: gehienak gaztelania hutsean, batzuk euskara hutsean.

– Normalizatu gabeko testuekin errotulatutako ikastetxeak: adibidez, *herri ikastetxea, herri eskola, eskola publikoa, ikastetxe publikoa, ikastetxea...*

– Ofiziala ez zen izenarekin errotulatutako ikastetxeak.

– Errotuluak egoera txarrean zituzten ikastetxeak (apurtuak, letra batzuk erorita e.a.).

– Bestelakoak.

A1. CRITERIOS PARA LA ELECCIÓN DEL SISTEMA

Al inicio del plan la situación de los centros educativos de la Comunidad Autónoma Vasca, en cuanto a rotulación exterior se refiere, era muy diversa:

– Centros carentes de rótulo exterior.

– Centros rotulados exteriormente pero con rótulos cuyos textos estaban redactados, en la mayoría de los casos, exclusivamente en castellano y, en algunos casos, exclusivamente en euskera.

– Centros rotulados con textos sin normalizar: por ejemplo, se han venido utilizando los términos *colegio público*, *escuela pública*, *escuela*, *colegio...*

– Centros rotulados con denominaciones no coincidentes con la oficial.

– Centros con rótulos deteriorados, faltos de algunas letras, etc.

– Otros.

Arazo hauek konpontzeko errotulazio-sistema berri baten beharra zegoen. Hona hemen errotulazio-sistema berriaren ezaugarriak:

a) Elebitasuna

Euskararen Normalizazio Legea eta uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua garatuz Hezkuntza eta Kultura Sailaren abuztuaren leko Agindua (1983ko abuztuaren 19ko EHAA) oinarritzat hartuz, errotuluetan agertzen diren testuak euskaraz eta gaztelaniaz idazten dira:

– Ikastetxearen izen berezia forma bakarrean erabiltzen da kasurik gehienetan. Zenbait kasutan, hala ere, elebiduna da (ikus *Izen Zerrenda* atalean).

– Izen generikoa: euskaraz eta gaztelaniaz.

– Irakasmailak: euskaraz eta gaztelaniaz.

– Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco.

Por lo tanto, se hacía patente la necesidad de rotular nuevamente los centros educativos con un sistema de rotulación que respondiera a las necesidades citadas con las siguientes características:

a) Bilingüismo

Partiendo de la Ley de Normalización del Euskera y de la Orden del Departamento de Educación y Cultura del 1 de agosto de 1983 (BOPV del 19 de agosto de 1983) que desarrolla su Decreto 138/1983 del 11 de julio, los textos que aparecen en los rótulos se escriben tanto en euskera como en castellano:

– La denominación propia del centro tiene, generalmente, una única versión. En algunos casos, sin embargo, es bilingüe (véase el apartado *Listado de denominaciones*).

– Denominación genérica: en euskera y castellano.

– Niveles educativos: en euskera y castellano.

– Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila / Departamento de Educacion, Universidades e Investigacion.

b) Aplikazio standardizatua

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe guztiak anagrama jakin batekin identifikatzen dituen errotulua da. Beraz, diseinuan agertzen diren anagrama, koloreak eta ezaugarri nagusiak berdinak dira kasu guztietan.

c) Ikastetxe-mota guztietara egokitzeko ahalmena

Ikastetxeak kanpotik errotulatzeko formato eta diseinu baliagarria duen errotulua da.

Formatoari dagokionean, bi neurri desberdinetako errotuluak egiten dira, standarda eta txikia, kasuan kasurako eta beti ezaugarri estetikoen eta ikus eta irakurgarritasun-irizpideen arabera egokiena aukeratu ahal izateko.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila / Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

b) Aplicación estandarizada

Esta nueva rotulación exterior identifica a todos los centros educativos dependientes del Departamento de Educación del Gobierno Vasco con un único anagrama. Por ello, tanto el propio anagrama, como los colores y las características principales del diseño son iguales en todos los casos.

c) Adaptabilidad a todos los tipos de centros

Tanto el formato como el diseño de este modelo de rótulo exterior se adaptan a todos los tipos de centros.

En lo que al formato se refiere, se realizan rótulos de dos tamaños diferentes, standard y pequeño, con el fin de elegir en cada caso el más adecuado en base a las características estéticas del centro y a los criterios de visibilidad y legibilidad.

Diseinuari dagokionean, zuhaitza inguratu eta ikastetxearen izena azpimarratuz errotuluaren eskuineko ertzeraino iristen den marra luzera desberdinetako izenetara egokitzen da, diseinuaren bateratzaile-izaerari ezer kendu gabe.

d) LOGSE legearekiko egokitzapena

Bi aldetatik lortzen da:

– Irakasmailak hauek dira: Haur Hezkuntza (ez Eskolaurrea), Lehen Hezkuntza (ez OHO) eta Bigarren Hezkuntza (ez Irakaskuntza Ertainak). Ikastetxe askotan Haur eta Lehen Hezkuntza biltzen dira.

– Ikastetxeen izen generikoak hauetxek dira: Haur Hezkuntza ematen dutenena *eskola;* Lehen Hezkuntza ematen dutenena *ikastetxea;* Bigarren Hezkuntza ematen dutenena *institutua.* Haur eta Lehen Hezkuntza biltzen dituztenei *ikastetxea* jarri zaie. Hezkuntza Berezia edo Helduen Hezkuntza ematen dutenei *ikastegia* jarri zaie.

En lo tocante al diseño, la línea que, en forma de casa, envuelve el árbol y se prolonga a lo largo del rótulo subrayando la denominación del centro permite su adaptación a cualquier longitud de texto sin perder consistencia corporativa.

d) Adecuación a la LOGSE

Esta adecuación se efectúa por dos vías:

– Niveles educativos: Educación Infantil (no Preescolar), Educación Primaria (no EGB) y Educación Secundaria (no Enseñanzas Medias). En muchos centros se agrupan Educación Infantil y Primaria.

– Denominaciones genéricas de los centros: los que imparten Educación Infantil son *escuelas;* los que imparten Educación Primaria, *colegios;* los que imparten Educación Secundaria, *institutos.* A los que agrupan Educación Infantil y Primaria se les ha denominado *colegios.* A los que imparten Educación Especial o Educación de las Personas Adultas se les ha denominado *centros.*

e) Kanpo-errotuluaren izaera aldakorra

Hezkuntza-arloaren erreformak, LOGSEaren bidez gauzatzen ari denak, aldaketa ugari ekarri du eta, oraindik ere, erreforma irakasmailetan gora ezarri ahala, aldaketa gehiago egin beharra egongo da, ziurrenera.

Ondorioz, kanpo-errotulazioko sistema aukeratzerakoan, gerta daitezkeen aldaketak ahalbidetuko dituen sistema bat lortu beharra zegoen. Beraz, aukeratutako sisteman agertzen diren testu guztiak, *Eusko Jaurlaritza* eta *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila* izan ezik, hala behar bada alda daitekeen materialean egiten dira.

f) Bestelako ezaugarriak

Aipatutako ezaugarri guztiez gain, hurrengo hauek ere aipatu beharrekoak dira:

– Diseinu modernoa.
– Begien erakargarria.
– Gogoratzen erraza.
– Aukera ugarikoa.

e) Carácter variable de la rotulación exterior

La reforma educativa que se está materializando en base a la LOGSE conlleva grandes cambios y es muy probable que sea preciso seguir realizándolos durante el período de implantación progresiva hasta los niveles educativos superiores.

Por lo tanto, los rótulos debían materializarse de forma que fuera posible efectuar los cambios precisos. En consecuencia, todos los textos excepto *Gobierno Vasco* y *Departamento de Educación, Universidades e Investigación* se realizan en un material que posibilite su sustitución.

f) Otras características

Además de las características citadas, merecen resaltarse las siguientes:

– Modernidad del diseño.
– Visualmente impactante.
– De fácil rememoración.
– Versátil.

A2. AUKERATUTAKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA

Errotulua aluminiozko bandeja pestainaduna da. Bi formatoko errotuluak egiten dira: 1.750 x 900 x 55 mm.ko errotulu standarda eta 900 x 500 x 45 mm.ko errotulu txikia.

Bandeja hau aluminiozko markoan torlojotzen da. Marko hori, kasu gehienetan, aurrez hormari lotzen zaio.

Formato standardeko errotuluaren markoa 12 gabilaz lotzen da horman: 4 goitik, 4 behetik eta 2 albo bakoitzetik; formato txikikoa lotzeko 6 erabiltzen dira: 2 goitik, 2 behetik eta 1 albo bakoitzetik. Horretarako, markoari behar adinbat zulo egiten zaizkio, bata bestetik distantzia jakin batera. (1. irudia).

A2. DESCRIPCIÓN DEL SISTEMA ADOPTADO


El rótulo consta de una bandeja de aluminio con pestañas. Se fabrica en dos formatos: rótulo standard de 1.750 x 900 x 55 mm. y rótulo pequeño de 900 x 500 x 45 mm.

Esta bandeja se atornilla en un marco de aluminio que, en la mayoría de los casos, se fija previamente al muro.

En el rótulo standard la fijación del marco al muro se realiza mediante 12 tirafondos: 4 en la parte superior, 4 en la inferior y 2 en cada lateral; en el pequeño mediante 6 tirafondos: 2 en la parte superior, 2 en la inferior y 1 en cada lateral. Para ello se le realizan al marco los orificios necesarios a una distancia determinada entre ellos. (**Figura 1**).

1. irudia **Neurriak mm.tan daude**

Errotulu standarda
Rótulo standard



Errotulu txikia
Rótulo pequeño




Figura 1 **Medidas en mm.**

Markoaren eta bandejaren arteko lotura egiteko txapan hariztatzeko torlojo herdoilgaitzak erabiltzen dira: 12 errotulu standardean (4 goitik, 4 behetik eta 2 albo bakoitzetik) eta 10 errotulu txikian (3 goitik, 3 behetik eta 2 albo bakoitzetik). Torlojo hauek ere distantzia jakin batzuetan jartzen dira eta plastikozko tapaki txiki zuri banarekin estaltzen dira. (2. irudia).

Sistema honekin errotuluaren bandeja erraz ken daiteke, markoa horman itsatsita gelditzen delarik. (3. irudia).

Batzuetan, hala ere, horman ez, baizik eta bestelako lekuetan jartzen da: hesian, hesiz gain bere atzean jarritako bi oinek eusten dutela, berdegunean zimendatutako bi oinen gainean edo estalpe gainean. Kasu hauetan guztietan atzetik itxitura bat ezartzen zaio.


La unión entre el marco y la bandeja se realiza atornillando lateralmente ésta a aquél con tornillos rosca-chapa inoxidables: 12 en el rótulo standard (4 en la parte superior, 4 en la inferior y 2 en cada lateral) y 10 en el rótulo pequeño (3 en la parte superior, 3 en la inferior y 2 en cada lateral). También estos tornillos se colocan a unas distancias determinadas. Estos tornillos van cubiertos con una caperuza blanca de material plástico. (**Figura 2**).

Este sistema permite retirar fácilmente la bandeja, manteniendo fijo en el muro el marco de anclaje. (**Figura 3**).

En ocasiones, el rótulo va colocado en otras ubicaciones: sujeto a la valla, o bien sobre dos pivotes tras la valla elevando el rótulo sobre la misma, o bien sobre dos pivotes cimentados en verdín, o bien sujeto sobre marquesina. En todas estas variantes lleva un cerramiento posterior.

2. irudia **Neurriak mm.tan daude**

Errotulu standarda
Rótulo standard



Errotulu txikia
Rótulo pequeño




Figura 2 **Medidas en mm.**

3. irudia




Figura 3

A3. ANAGRAMA ETA EUSKO JAURLARITZAREN «A» MARKA

Kanpo-errotuluan izaera desberdinetako testu eta grafismoak azaltzen dira: batzuk etengabe errepikatzen dira errotulu guztietan; beste batzuk, berriz, ikastetxearen arabera aldatzen dira. Anagrama eta Eusko Jaurlaritzaren «A» marka berdin mantentzen dira errotulu guztietan.

***Década* etxeak proposatutako anagramak eskuz egindako marrazkia du oinarri; etxe-itxurako marra bat da, barruan zuhaitza daukana eta errotuluan zehar luzatzen dena, ia-ia ezkerreko albotik hasi eta eskuineko muturreraino, ikastetxearen izena azpimarratuz. Anagramaren edukin sinbolikoari dagokionean, etxearen (eskola espazio fisiko eta inguru gisa) eta zuhaitzaren arteko lotura adierazi nahi du. Zuhaitzak euskal ikonografian duen antzinatiko garrantzia alde batera utzita, sinbolo hau hazkuntza sendoaren eta balioen irakaskuntzaren, hezkuntzak instituzio den aldetik dituen ezaugarri positiboen erreferentzia gisa izan da aukeratua. Aipatutako hazkuntza etxearen/eskola-inguruaren babesean gertatzen da sinbolikoki eta bere oi-**

A3. ANAGRAMA Y MARCA «A» DEL GOBIERNO VASCO

En el rótulo exterior aparecen textos y grafismos de carácter diverso: mientras que unos se repiten en todos los rótulos, otros van cambiando en función del centro en cuestión. El anagrama y la marca «A» del Gobierno Vasco se mantienen fijos en todos los rótulos.

El anagrama propuesto por la empresa *Década* se basa en un trazado manual constituido por un árbol y una línea en forma de casa que lo alberga y se prolonga a lo largo del rótulo subrayando la denominación del centro. El contenido simbólico del mismo, altamente figurativo, establece la relación entre el recinto (la escuela como espacio físico y a la vez contexto) y el árbol. Sin entrar en la importancia ancestral del árbol en la iconografía vasca, se ha elegido este símbolo como referencia de crecimiento sólido y cultivo de valores, atributos positivos de la institución educativa. Este crecimiento se produce simbólicamente al abrigo del recinto/contexto escolar y su base se prolonga indefinidamente con dos intenciones: una funcional (servir de apoyo a la tipografía) y otra semántica (importancia de la educación en la

narria mugarik gabe luzatzen da, bi xederekin: bata funtzionala (tipografiaren euskarri izatea) eta bestea semantikoa (hezkuntzak norbanakoaren geroko bilakaeran duen garrantzia, esperientzieri gertaleku eta bizitza osorako balio eta portaera-ereduen iturburu izatea). (4. irudia).

Eusko Jaurlaritzaren «A» marka 5. irudian azaltzen da. Kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzaren «A» markaren kasuan, soil-soilik armarriaren zabalera ematen dela, «A» marka egiterakoan ekoizleek ez baitute zati bakoitza bere aldetik konposatu behar, baizik eta Eusko Jaurlaritzan eskuratuko zaien diskete edo fotolitoan oinarrituta lan egin, behar diren handitzeak «A» markari bere osotasunean ezarriz.

A3.1 MATERIALAK

Bai anagrama eta bai Eusko Jaurlaritzaren «A» marka egiteko serigrafia erabiltzen da.

evolución posterior de la persona, escenario de experiencias, base de valores y modelos de conducta para toda la vida). (**Figura 4**).

La marca «A» del Gobierno Vasco aparece en la **figura 5**. Debe tenerse en cuenta que, en este caso, solamente se especifica la anchura del escudo, de modo que los fabricantes no compongan por separado los diversos integrantes de la marca, sino que hagan las ampliaciones precisas del conjunto en su totalidad basándose en el fotolito o disquete que se les facilitará en el Gobierno Vasco.

A3.1 MATERIALES

Tanto el anagrama como la marca «A» del Gobierno Vasco se realizan en serigrafía.

4. irudia



Figura 4

5. irudia



A = 90 mm. (errotulu standardean / en el rótulo standard)
A = 45 mm. (errotulu txikian / en el rótulo pequeño)

Figura 5

A3.2 KOLOREAK

Honako kolore hauek erabiltzen dira:

a) Anagrama (6. irudia)

– Zuhaitza: berde iluna (350 C Pantonea).

– Zuhaitza inguratzen duen etxe-itxurako marra eta honen jarraipen gisa ikastetxearen izena azpimarratzen duena: gris iluna (432 C Pantonea).

6. irudia



Figura 6

A3.2 COLORES

Los colores que se utilizan son los siguientes:

a) Anagrama (Figura 6)

– Árbol: verde oscuro (Pantone 350 C).

– Línea envolvente del árbol en forma de casa y continuación a modo de subrayado de la denominación del centro: gris oscuro (Pantone 432 C).

b) Eusko Jaurlaritzaren «A» marka

– Eusko Jaurlaritzaren armarri soila: kuatrikromia, araudiaren arabera. (7. irudia)

– Eusko Jaurlaritzaren «A» markako testu eta azpimarrak: beltzak.

7. irudia

EUSKO JAURLARITZAREN ARMARRI SOILA
ESCUDO SIMPLIFICADO DEL GOBIERNO VASCO



PANTONE 355 U CUATRICROMÍA 100% cian 100% amarillo	PANTONE 291 U CUATRICROMÍA 70% cian 20% magenta	PANTONE Warm Red U CUATRICROMÍA 100% magenta 100% amarillo
PANTONE 871 U CUATRICROMÍA 30% cian 40% magenta 85% amarillo	PANTONE 471 U CUATRICROMÍA 50% cian 70% magenta 100% amarillo	PANTONE COOL GRAY 9 U (*) CUATRICROMÍA 65% negro
PANTONE 877 U CUATRICROMÍA 25% negro	PANTONE 301 U CUATRICROMÍA 100% cian 70% magenta 20% amarillo	NEGRO CUATRICROMÍA 100% negro

Figura 7

b) Marca «A» del Gobierno Vasco

– Escudo simplificado del Gobierno Vasco: cuatricromía, según normativa. (**Figura 7**).

– Textos y subrayados de la marca «A» del Gobierno Vasco: negro.

A3.3 TIPOGRAFIA

«A» markako testuak *Helvética* izeneko letra larrietan idazten dira.

A3.4 NEURRIAK ETA LEKUTZEA

Anagramaren neurriak eta berau eta armarria lekutzeari dagozkionak 8. irudian daude azalduta.

A3.3 TIPOGRAFÍA


Los textos de la marca «A» se realizan en letra tipo *Helvética*, escribiéndose todos ellos en letras mayúsculas.

A3.4 DIMENSIONES Y UBICACIÓN

Las dimensiones del anagrama y la ubicación de éste y del escudo se detallan en la **figura 8.**

8. irudia **Neurriak mm.tan daude**

Errotulu standarda
Rótulo standard



Errotulu txikia
Rótulo pequeño




Figura 8 **Medidas en mm.**

A4. IKASTETXEAREN IZENA

Ikastetxearen izenak izaera desberdineko osagaiak ditu:

a) Izen berezia

Kasu guztietan desberdina da (J.M. BARANDIARAN, IPINTZA, ORIXE...). Zenbait kasutan izen hau bi hizkuntzetan idazten da; besteetan euskara edo gaztelania hutsean.

b) Izen generikoa

Herri ikastetxea, herri eskola, institutua edo herri ikastegia, ikastetxeak ematen duen irakasmailaren arabera. Izen generikoa beti euskaraz eta gaztelaniaz idazten da.

Ikastetxearen izenaren arabera bi eredu egiten dira:

A4. DENOMINACIÓN DEL CENTRO

La denominación del centro está constituida por elementos de carácter diverso:

a) Denominación propia

Diferente en todos los casos (J.M. BARANDIARAN, IPINTZA, ORIXE...). En algunos casos, la denominación propia aparece en versión bilingüe; en el resto, en euskera o en castellano.

b) Denominación genérica

Colegio público, escuela pública, instituto o centro público, dependiendo del nivel educativo que imparte el centro. La denominación genérica siempre se escribe en euskera y en castellano.

Dependiendo de la denominación del centro, se realizan dos modelos:

a) Hiru lerrokoa

Izen generiko erdalduna lehenengo lerroan idazten da, izen berezia bigarrenean (bi hauek marraren gainean) eta izen generiko euskalduna hirugarrenean (marraren azpian). Kasu hau da, askogatik, ugariena. (9. irudia).

b) Bi lerrokoa

Ikastetxearen izena oso-osorik (izen berezia + izen generikoa) euskal bertsioan marraren gainean idazten da eta, marraren azpian, ikastetxearen izena, oso-osorik, bere erdal bertsioan.

9. irudia



Figura 9

a) Modelo de tres líneas

La denominación genérica en castellano en la primera línea, la denominación propia en la segunda (ambas sobre el subrayado) y la denominación genérica en euskera en la tercera (bajo el subrayado). Es, con mucho, el modelo más frecuente. (**Figura 9**).

b) Modelo de dos líneas

La versión en euskera de la denominación completa (denominación propia + denominación genérica) sobre el subrayado y la versión completa en castellano bajo el subrayado.

Eredu hau hurrengo kasu hauetan erabiltzen da:

– **Ikastetxearen izen berezia leku-izena denean: euskarazko bertsioan *leku-izena+ko+izen generikoa* eta gaztelaniazko bertsioan *izen generikoa+de+leku-izena.* (10. irudia).**

– **Izen berezia bi hizkuntzetan idazten denean, euskaraz eta gaztelaniaz. (11. irudia).**

10. irudia



Figura 10

11. irudia



Figura 11

Este modelo se utiliza en los siguientes casos:

– Cuando la denominación propia del centro está constituida por un nombre propio de lugar: en la versión euskérica *nombre propio de lugar+ko+denominación genérica* y en la versión castellana, *denominación genérica+de+nombre propio de lugar.* (**Figura 10**).

– Cuando la denominación propia es bilingüe, en euskera y en castellano. (**Figura 11**).

– PAT-COP / IKUSKARITZA-INSPECCIÓN: euskarazko bertsioan *leku-izena+ko+PAT/IKUSKARITZA* eta gaztelaniazko bertsioan *COP/INSPECCIÓN+de+leku-izena.* Adibidez: DURANGOko PAT / COP de DURANGO.

– HHEko herri ikastegi jakin batzuen kasuan: euskarazko bertsioan *leku-izena+ko+herri ikastegia – leku-izena+ko+gela(k)* eta gaztelaniazko bertsioan *centro publico+de+leku-izena – aula/círculo+de+leku-izena.* Adibidez: LEIOAko herri ikastegia – ERANDIOko gela / centro público de LEIOA – aula de ERANDIO.

– Salbuespenezko kasu batzuetan izen berezia zein generikoa letra larriz ematen dira: GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLA / ESCUELA DE HOSTELERÍA DE GAMARRA; PAPER INGENIARITZA TEKNIKORAKO ESKOLA / ESCUELA DE INGENIERÍA TÉCNICA PAPELERA, e.a.

– PAT-COP / IKUSKARITZA-INSPECCIÓN: en la versión euskérica *nombre propio de lugar+ko+PAT/IKUSKARITZA* y en la castellana *COP/INSPECCIÓN+de+nombre propio de lugar*. Por ejemplo: DURANGOko PAT / COP de DURANGO.

– En el caso de algunos centros concretos de EPA: en la versión euskérica *nombre propio de lugar+ko+herri ikastegia – nombre propio de lugar+ko+gela(k)* y en la versión castellana *centro público+de+nombre propio de lugar – aula/círculo+de+nombre propio de lugar*. Por ejemplo: LEIOAko herri ikastegia – ERANDIOko gela / centro público de LEIOA aula de ERANDIO

– En algunos casos excepcionales tanto la denominación propia como la genérica se escriben en letra mayúscula: GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLA / ESCUELA DE HOSTELERÍA DE GAMARRA; PAPER INGENIARITZA TEKNIKORAKO ESKOLA / ESCUELA DE INGENIERÍA TÉCNICA PAPELERA, etc.

A4.1 MATERIALAK

Testu hauek guztiak biniloan egiten dira.

A4.2 KOLOREAK

Gris iluna erabiltzen da, bai izen berezia eta bai izen generikoa egiteko (3M 100-012 biniloa edo honen baliokideak beste marketan).

A4.3 TIPOGRAFIA

Testu hauek guztiak *Óptima* izeneko letraz idazten dira: letra larriz izen berezia eta letra xehez izen generikoa. (12. irudia).

A4.1 MATERIALES

Todos estos textos se realizan en vinilo.

A4.2 COLORES

El color que se utiliza tanto para la denominación propia como para la genérica es el gris oscuro (vinilo 3M 100-012 o equivalentes en otras marcas).

A4.3 TIPOGRAFÍA

Estos textos se realizan en letra tipo *Óptima*, utilizándose las letras mayúsculas para la denominación propia y las minúsculas para la genérica. (**Figura 12**).

12. irudia




Figura 12

A4.4 NEURRIAK

Honako neurriotan idazten dira, lehenengoa errotulu standardean eta bigarrena txikian:

– Ikastetxearen izen berezia: 90 mm. / 45 mm.ko letra larrian.

– Izen generiko elebiduna: 68 mm. / 34 mm.ko letra larriari dagokion letra xehean, lehen letra barne.

Ikus 13a eta 13b irudiak.

Izen berezia oso luzea delako berau idazteko dagoen tokian ondo sartzen ez denean, apur bat estutu egiten da, izenaren eta errotuluaren eskuineko ertzaren artean gutxienez 52 mm. utziz errotulu standardaren kasuan eta 26 mm. txikiaren kasuan, hau da, errotuluaren ezkerreko aldetik anagramaraino dagoen distantziaren erdia.

Estutze horrek irakurgarritasunaren gehiegizko galera badakar, letra piska bat txikitzera jotzen da.

A4.4 DIMENSIONES

De las dimensiones que aparecen a continuación, la primera se utiliza en el rótulo standard y la segunda en el pequeño:

– Denominación propia del centro: letra mayúscula de 90 mm. / 45 mm.

– Denominación genérica bilingüe: letra minúscula correspondiente a la mayúscula de 68 mm. / 34 mm., incluida la letra inicial.

Véanse **figuras 13a** y **13b.**

En los casos en que la denominación propia tiene una longitud excesiva, se comprime un poco, dejando entre el final del texto y el borde derecho del rótulo un margen mínimo igual a la mitad del margen existente entre el borde izquierdo del rótulo y el anagrama, es decir, 52 mm. en el rótulo standard y 26 mm. en el pequeño.

Si dicha compresión conlleva un detrimento excesivo de la legibilidad del texto, se reduce un ápice el tamaño de la letra.

13a. irudia



Figura 13a

Neurriak mm.tan daude

Errotulu standarda
Rótulo standard



Medidas en mm.

13b. irudia **Neurriak mm.tan daude**




Figura 13b **Medidas en mm.**

A4.5 LEKUTZEA

Ikus hurrengo irudietan ikastetxearen izena lekutzeari dagozkion neurriak:

a) Hiru lerroko eredua: (14. irudia).

b) Bi lerroko eredua: (15. irudia).

A4.5 UBICACIÓN


Véanse en las siguientes figuras los detalles de la ubicación del texto en ambos modelos:

a) Modelo de tres líneas: (**Figura 14**).

b) Modelo de dos líneas: (**Figura 15**).

14. irudia **Neurriak mm.tan daude**

Errotulu standarda
Rótulo standard



Errotulu txikia
Rótulo pequeño





Figura 14 **Medidas en mm.**

15. irudia **Neurriak mm.tan daude**

Errotulu standarda
Rótulo standard



Errotulu txikia
Rótulo pequeño




Figura 15 **Medidas en mm.**

Salbuespenak

– «J» duten izen bereziak: hauek lekutzeari dagokionean, desberdin jokatzen da. Alde batetik, «J»ren zutikako makila izen generikoaren lehenengo letraren ezker aldearen pare-parean jartzen da. Bestetik, «J»ren beheko aldea azpimarratik 3 mm.ra idazten da errotulu standardaren kasuan eta 1,5 mm.ra errotulu txikiaren kasuan; era berean jokatzen da «Q» daukaten izen bereziekin eta, bi lerroko ereduetan, toponimoari *-go* erasten zaionean edota herri ikastegiak direnean. Adibidez: ANDOAINgo herri ikastegia.

– UBEI-IVBAD / UOHEI-CEVEBAD

- UBEI-IVBAD
Urrutiko Batxilergorako Euskal Institutua
Instituto Vasco de Bachillerato a Distancia

- UOHEI-CEVEBAD
Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzarako Euskal Ikastegia
Centro Vasco de Educación Básica a Distancia

Excepciones

– Denominaciones propias que contienen la letra «J»: la ubicación varía. Por un lado, la parte vertical de la «J» se alinea con la parte izquierda de la inicial de la denominación genérica. Por otro, la parte inferior de la «J» se coloca, en el rótulo standard, a 3 mm. del subrayado y, en el pequeño, a 1,5 mm.; se actúa del mismo modo con las denominaciones propias que contienen la letra «Q» y, en el modelo de dos líneas, cuando al topónimo se le añade la partícula *-go* y/o la denominación genérica es *herri ikastegia.* Por ejemplo: ANDOAINgo herri ikastegia.

– UBEI-IVBAD / UOHEI-CEVEBAD

- UBEI-IVBAD
Urrutiko Batxilergorako Euskal Institutua
Instituto Vasco de Bachillerato a Distancia

- UOHEI-CEVEBAD
Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzarako Euskal Ikastegia
Centro Vasco de Educación Básica a Distancia

Bi kasu hauetan, nahiz eta hiru lerrokoak izan, testuak desberdin lekutzen dira errotuluan: siglak marraren gainean (ezkerreko aldean euskal sigla eta eskuineko aldean erdal sigla) eta marraren azpian lehenengo euskarazko testua oso-osorik eta honen azpian erdarazkoa, oso-osorik hau ere. Bi testu hauek letra xehez idazten dira, hitz bakoitzaren lehen letra larria izanik, erdarazko «de» eta «a» preposizioetan izan ezik.

A4.6 PAREKATZEAK

a) Hiru lerroko eredua

Lehendabizi izen generikoaren euskal eta erdal bertsioen artean batasun eta osotasun bat bilatzen da, biak parekatuz. Izen generikoen arabera desberdin jokatzen da:

En estos dos casos, aunque son de tres líneas, los textos se ubican de forma diferente en el rótulo: sobre el subrayado, las siglas (en euskera a la izquierda y en castellano a la derecha) y bajo el subrayado, en primer lugar el texto completo en euskera y, debajo de éste, el texto completo en castellano. Estos textos completos se escriben en minúscula, excepto la inicial de cada palabra, que se escribe en mayúscula; las preposiciones «a» y «de» se escriben íntegramente en minúscula.

A4.6 EMPAREJAMIENTOS

a) Modelo de tres líneas

En primer lugar se realiza el emparejamiento entre las versiones en euskera y en castellano de la denominación genérica, a fin de lograr una unidad visual. La forma de realizar este primer emparejamiento varía según la denominación genérica en cuestión:

– Herri ikastetxea, institutua, herri ikastegia: hiru kasu hauetan, euskarazko testua berez-berez idazterakoan geratzen den neurria hartzen da oinarri. Erdal bertsioa neurri horretaraino eramaten da.

– Herri eskola: irizpide berbera aplikatuz gero, *escuela pública* harekin parekatzeko gehiegi estutu beharko litzateke. Erdibidera jotzen da, bi testuen arteko diferentziaren erdiko luzera euskarazko testuari eman eta berau zabalduz, eta beste erdiko luzera erdarazkoari kendu eta berau estutuz.

Izen generikoaren euskal eta erdal bertsioek, parera eramandakoan, luzera jakin bat hartzen dute. Luzera horren eta izen bereziaren luzeraren arteko aldea %20koa baino handiagoa bada, izen berezia berez-berez dagokion bezala idazten da. Aldea %20koa edo txikiagoa bada, izen berezia izen generikoarekin parekatzen da, zabalduz edo estutuz.

– Colegio público, instituto, centro público: en estos tres casos, la denominación genérica en castellano se adapta hasta alcanzar la extensión de la denominación genérica en euskera.

– Escuela pública: aplicando el mismo criterio, el término *escuela pública* tendría que comprimirse excesivamente. Se ha optado por una vía intermedia: se expande la versión euskérica, añadiéndole una longitud equivalente a la mitad de la diferencia entre ambos textos y se comprime la versión castellana, restándole la longitud correspondiente en la misma medida.

Si la diferencia entre la longitud de la denominación propia y la resultante del emparejamiento entre las versiones euskérica y castellana de la denominación genérica es superior al 20%, la denominación propia se redacta de la forma que le corresponde. Si dicha diferencia es igual o inferior al 20%, la denominación propia se expande o se comprime hasta lograr el emparejamiento con la denominación genérica.

b) Bi lerroko eredua

Izena oso-osorik hartuz (izen berezia + izen generikoa) gaztelaniazko testua euskarazkoari egokitzen zaio, hura zabalduz edo estutuz.

Izen osoak gehienez 1.372 mm.ko luzera har dezake errotulu standardean eta 711 mm.koa errotulu txikian. Luzera handiagoa badu, neurri horretara ekartzen da, estutuz.

Testu hauek parekatzeko egiten diren estutze-zabaltzeak hitzei eta hitz-multzoei ezartzen zaizkie, ez letrei edo tarteei soilik.

b) Modelo de dos líneas

La denominación completa en castellano (denominación propia + denominación genérica) se adapta a la denominación completa en euskera, expandiéndola o comprimiéndola.

La longitud máxima de la denominación completa en el rótulo standard es de 1.372 mm. y de 711 mm. en el rótulo pequeño. Cuando la longitud de la denominación completa supera los 1.372 mm. / 711 mm., se comprime hasta llevarla a dicha medida.

Las compresiones y expansiones que se realizan para emparejar los textos se aplican a palabras y a grupos de palabras, y no a letras o espacios exclusivamente.

A5. IRAKASMAILAK

Irakasmailak errotuluaren beheko banda berdeetako batean idazten dira, gaineko banda berdean hain zuzen ere. Euskal bertsioa bandaren ezkerreko aldean idazten da eta erdal bertsioa eskuineko aldean. (16. irudia).

Errotuluetan agertzen diren irakasmailak ondorengo hauek dira:

– Haur Hezkuntza (herri eskoletan).

– Lehen Hezkuntza (herri ikastetxeetan).

– Haur eta Lehen Hezkuntza (herri ikastetxeetan).

– Bigarren Hezkuntza (institutuetan).

16. irudia



Figura 16

A5. NIVELES EDUCATIVOS

Los niveles educativos se escriben en la primera de las bandas verdes inferiores. La versión en euskera se escribe en la parte izquierda de dicha banda y la versión en castellano en la derecha. (**Figura 16**).

Los niveles educativos son los siguientes:

– Educación Infantil (en escuelas públicas).

– Educación Primaria (en colegios públicos).

– Educación Infantil y Primaria (en colegios públicos).

– Educación Secundaria (en institutos).

Honako hauek ere banda berde berean idazten dira:

– Hezkuntza Berezia (herri ikastegietan).

– Helduen Hezkuntza (herri ikastegietan).

A5.1 MATERIALAK

Testu hauek biniloan egiten dira, letrak banda berdean hustuz.

A5.2 KOLOREAK

– Beheko bandak: berde iluna (3M 100-008 biniloa edo honen baliokideak beste marketan).

– Banda berdeetako biniloa hustutzean geratzen diren testuak: zuri satinatua.

También se ubican en la misma banda verde:

– Educación Especial (en centros públicos).

– Educación de las Personas Adultas (en centros públicos).

A5.1 MATERIALES

Estos textos se realizan en vinilo, vaciando las letras en la banda verde.

A5.2 COLORES

Los colores que se utilizan son los siguientes:

– Bandas inferiores: verde oscuro (vinilo 3M 100-008 o equivalentes en otras marcas).

– Textos resultantes del vaciado de letras en bandas inferiores: blanco satinado.

A5.3 TIPOGRAFIA

Irakasmailak, ikastetxearen izena bezala, *Óptima* izeneko letraz idazten dira.

Testu hauetako hitz guztiak letra xehez idazten dira, hitz bakoitzaren lehenengo letra salbu: hau larriz idazten da. Preposizioen («eta», «y» eta «de») lehen letra ere xehea da.

A5.4 NEURRIAK

Irakasmailak idazteko 44 mm. / 22 mm.ko letra larriari dagokion letra xehea erabiltzen da (lehenengo neurria errotulu standardean eta bigarrena txikian). Ikus 13a eta 13b irudiak.

A5.3 TIPOGRAFÍA

Los niveles educativos, al igual que la denominación del centro, se realizan en letra tipo Óptima.

Todas las palabras de estos textos se escriben en letra minúscula, excepto la inicial de cada una de ellas, que se escribe en letra mayúscula. Esta pauta se sigue con todos los componentes, exceptuando las preposiciones «eta», «y» y «de», cuya inicial se escribe en minúscula.

A5.4 DIMENSIONES

Se utiliza la letra minúscula correspondiente a la mayúscula de 44 mm. / 22 mm. (la primera dimensión se utiliza en el rótulo standard y la segunda en el pequeño). Véanse **figuras 13a** y **13b.**

A5.5 LEKUTZEA

Irakasmaila lekutzeari dagozkion neurriak 42. irudian daude.

17. irudia **Neurriak mm.tan daude**

Errotulu standarda
Rótulo standard



Errotulu txikia
Rótulo pequeño



Figura 17 **Medidas en mm.**

A5.5 UBICACIÓN

Véanse en la **figura 17** los detalles de la ubicación de los niveles educativos.

A5.6 PATak, IKUSKARITZAK...

Lehenengo banda berdean, irakasmailaren ordez, honako mezuok azaltzen dira: PATetan, *Pedagogi Aholkutegia / Centro de Orientación Pedagógica.* Ikuskaritzetan, *Hezkuntza Ikuskaritza / Inspeccion de Educación...*

A5.7 UDALAREN AIPAMENA

Zenbait kasutan, bigarren banda berdean udalaren aipamena ere egiten da, ezkerreko aldean *leku-izena+ko+Udala* eta eskuineko aldean *Ayuntamiento+de+leku-izena* idatziz.

Materialak, koloreak, neurriak, tipografi mota eta lekutzea irakasmailei dagozkien berberak dira.

A5.6 COPs, INSPECCIONES...

En la primera banda verde, en lugar del nivel educativo, figuran los siguientes mensajes: en los COPs, *Pedagogi Aholkutegia / Centro de Orientación Pedagógica.* En las Inspecciones, *Hezkuntza Ikuskaritza / Inspección de Educación...*

A5.7 MENCIÓN DEL AYUNTAMIENTO

En algunos casos se hace también mención del ayuntamiento en la segunda banda verde, escribiendo en la parte izquierda *nombre propio de lugar+ko+Udala* y en la parte derecha *Ayuntamiento+de+nombre propio de lugar.*

Los criterios referentes a materiales, colores, dimensiones, tipografía y ubicación son los mismos que los utilizados en el caso de los niveles educativos.

A6. KOKAERAK, MATERIALAK ETA FINKATZEKO SISTEMAK

A6.1 KOKAERA AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

Kanpo-errotuluak kasu gehienetan horman, sarrera nagusiko atearen gainean kokatzen dira (kokaera standarda). Baina kokaera hau hormari berari edo sarrerako inguruneari dagozkion ikus eta irakurgarritasun-irizpideen edo bestelako baldintzen arabera alda daiteke.

Beraz, eraikinetik hesiko sarreraraino metro gutxi daudenean eta kaletik ondo ikusi eta irakurtzen den kasuetan, errotulua sarrera nagusiko atearen gainean kokatzen da.

Sarrera nagusia kanpotik ikusten ez den kasuetan, errotulua sarreran dagoen horman ez, beste batean jartzen da, horma honetan jarrita kaletik ondo ikusi eta irakurtzen bada.

A6. UBICACIONES, MATERIALES Y SISTEMAS DE FIJACIÓN

A6.1 CRITERIOS PARA LA ELECCIÓN DE LA UBICACIÓN

Los rótulos exteriores, en la mayoría de los casos, se colocan en fachada, sobre la puerta de la entrada principal (ubicación standard). Esta ubicación puede variar en función de los criterios de visibilidad y legibilidad inherentes a la fachada y al entorno del acceso o de otro tipo de condicionantes.

Por lo tanto, en los casos en los que la distancia entre el edificio y la valla es pequeña, el rótulo se coloca sobre la puerta de la entrada principal, siempre que la visibilidad y la legibilidad desde el exterior sean buenas.

En los casos en los que la entrada principal no quede visible desde el exterior, el rótulo se coloca en otra fachada, sin descuidar la visibilidad y legibilidad necesarias.

Eraikina eta kalearen artean metro asko dagoenean edota, fatxadakoaz gain errotulu osagarri bat jartzea erabakitzen denean, errotulua hesian ezartzen da.

Eraikinaren aurrean egoera oneko berdegunea badago eta errotulua kaletik ondo ikusi eta irakurtzeko aukera ematen badu, berdegunean jartzen da, bi oinen gainean.

Errotulua sarreraren gainean jarri behar den kasuetan, eraikinak aurrean estalpea baldin badu eta, sarrerara hurbildu ahala errotulua bistatik galtzen bada, estalpea horretarako egokia izanez gero behintzat, beraren gainean ipintzen da, aurre-aurrean.

A6.2 OINARRIZKO MATERIALAK

A6.2.1 Bandeja

Tartean polietilenoa duten aluminiozko bi orrik osatzen dute; guztira 4 mm.ko lodiera hartzen dute. Materialak ezaugarri hauek ditu:

El rótulo se coloca en la valla si entre el edificio y la calle hay una distancia considerable o si se adopta la decisión de colocar un rótulo complementario.

El rótulo se coloca en verdín, sobre dos pivotes, cuando éste se encuentra en buenas condiciones y la visibilidad y legibilidad desde el exterior son buenas.

Cuando existe una marquesina que obstaculiza la visibilidad del rótulo sobre la entrada principal a medida que uno se acerca a ella, el rótulo se ubica en el borde frontal de dicha marquesina, si ésta reúne las condiciones adecuadas para su instalación.

A6.2 MATERIALES BÁSICOS

A6.2.1 Bandeja

Se trata de un panel compuesto por dos láminas de aluminio separadas por un alma de polietileno, con un grosor total de 4 mm., que reúne las siguientes características:

– Arintasuna, egonkortasuna, aldagaiztasuna, eguraldi-pairamena, basakeriekiko gogortasuna.

– Ezaugarri estetikoak: satinatua, homogeneoa eta eguraldi-erasoen eta UVA izpien eraginez kolorea aldatzen ez duena, jarraiko sistemaz lakatua edo pareko prestazioak dituen beste sistema batez lortua.

– Saileko produkzio arina egiteko aukera ematen duten ezaugarriak dituena: zerratzeko, postformatu-tolesteko, mekanizatzeko, zulatzeko...

Sistemaren deskribapenean aipatu denez, bi neurritako bandeja zuri satinatuak egiten dira: 1.750 x 900 x 55 mm.koa eta 900 x 500 x 45 mm.koa. Kasu oso berezietan txikiagoak egin beharra ere gerta daiteke. Horrelakoetan, 600 x 333 x 25 mm.ko neurria eta 300 x 166 x 15 mm.koa erabiltzen dira.

Materiala inoiz ez da gehiegi fresatu behar, ertzak borobilduak gera daitezen.

– Ligereza, estabilidad, inalterabilidad, resistencia a la intemperie, tenacidad antivandálica.

– Cualidades estéticas: presentación de una superficie satinada homogénea y de color inalterable a la intemperie o a la acción de los rayos UVA, por sistema de lacado en continuo u otro sistema de prestaciones equivalentes.

– Propiedades de aserrado, plegado postformado, mecanizado, taladrado, etc. que permiten una producción seriada y rápida.

Tal como se ha indicado en la descripción del sistema, se fabrican bandejas blancas satinadas de dos tamaños: una de 1.750 x 900 x 55 mm. y otra de 900 x 500 x 45 mm. En casos excepcionales puede resultar necesario el uso de bandejas más pequeñas. En esos casos se opta por las medidas siguientes: 600 x 333 x 25 mm. o 300 x 166 x 15 mm.

El material nunca se fresa en exceso, para que los bordes queden redondeados.

Bandeja osatzeko, tolestu eta pestaina batzuk egiten zaizkio. Ondoren, ertz bakoitzaren barruko aldetik aluminiozko angelu txiki bat jartzen da, pestainetan itsatsi eta errematxatuta, horiei gogortasuna eta bukaera egokia ematearren. (Ikus 3. irudia).

A6.2.2 Markoa

Formato standardeko errotuluan 50 x 25 mm.ko aluminio anodizatuzko tuboarekin egiten da eta formato txikiko errotuluan 40 x 20 mm.koarekin. Bi kasuetan ere, aluminioak 2 mm.ko lodiera du.

Osatutako markoaren kanpoko neurria 1.735 x 885 mm.koa da errotulu standardean eta 885 x 485 mm.koa errotulu txikian.

Tuboak ingletatuz elkartzen dira, ertz bakoitzean PVCzko angelu bat edo pareko prestazioak dituen beste sistema bat daramalarik, ertzari gogortasun handiagoa ematearren.

Sistemaren deskribapenean (A2 puntua) azaldu da markoa hormari zenbat gabilaz lotzen zaion. Gabila hauetako bakoitza sartzeko tubo-

Una vez conformada la bandeja con cuatro pestañas, se refuerzan dándoles un correcto acabado con un pequeño ángulo de aluminio colocado en la parte interior de cada esquina, encolado y remachado a las pestañas. (Véase **figura 3**).

A6.2.2 Marco

Se realiza en base a un tubo de aluminio anodizado de 50 x 25 mm. en el rótulo de formato standard y de 40 x 20 mm. en el de formato pequeño. En ambos casos se utiliza un aluminio de 2 mm. de espesor.

Las dimensiones de los marcos así realizados son de 1.735 x 885 mm. en el rótulo de formato standard y de 885 x 485 mm. en el de formato pequeño.

La unión de los tubos se realiza mediante ingletes. Cada esquina se refuerza interiormente con un ángulo de PVC o con otro sistema de prestaciones equivalentes.

En la descripción del sistema (punto A2) se ha especificado el número de tirafondos necesario para realizar la fijación del marco al muro. De los orifi-

ari bi zulo egiten zaizkio, hormaren aldekoa gabilak behar duen diametrokoa da eta bandejaren aldekoa diametro handiagokoa, gabilaren burua pasatzeko eta behar den tresnaz lotu ahal izateko. Horrela, gabilaren buruak tuboaren alde bat hormari berta-bertatik eta oso trinko eustea lortzen da.

Bandeja eta markoa errotulu guztietan erabiltzen dira.

A6.2.3 Atzeko itxitura

1,5 mm.ko lodiera duen aluminiozko txapa bat da, zuriz lakatua. 1.750 x 900 mm.koa da errotulu standardean eta 900 x 500 mm.koa errotulu txikian.

Itxitura hau, errotulua horman jartzen denean ez beste kasu guztietan erabiltzen da.

cios que se realizan en el tubo para introducir cada tirafondo, el realizado en la cara que se adosa al muro es del diámetro que precisa el tirafondo y el realizado en la cara por la que queda unido a la bandeja es de diámetro mayor, con el fin de poder introducir por él la cabeza del tirafondo y atornillarlo con la herramienta correspondiente. De esta forma se consigue que la cabeza del tirafondo sujete consistentemente una de las caras del tubo al muro.

La bandeja y el marco se utilizan en todos los rótulos.

A6.2.3 Cerramiento posterior

Es una chapa de aluminio de 1,5 mm. de espesor lacada en blanco. Las medidas son de 1.750 x 900 mm. en el rótulo standard y de 900 x 500 mm. en el pequeño.

Este cerramiento se utiliza en todos los casos en los que el rótulo no va adosado al muro.

A6.3 KOKAERAK ETA MATERIAL OSAGARRIAK

A6.3.1 Horman (kokaera standarda)

Errotulu standarda

a) Beheko solairuaren eta lehen solairuaren artean jartzen da. Tartea identifikatu ondoren, tartea goitik eta behetik mugatzen duten lerroen artean zentratzen da. (1. argazkia).

1. argazkia



Foto 1

A6.3 UBICACIONES Y MATERIALES COMPLEMENTARIOS

A6.3.1 En fachada (ubicación standard)

Rótulo standard

a) En el espacio comprendido entre la planta baja y la primera. Una vez identificado el espacio, se centra entre los límites visuales superior e inferior. (**Fotografía 1**).

Tarte horretan erdian, ezkerretara edo eskuinetara jartzea kasuan-kasuan erabakitzen da, dauden oztopo estetiko eta bisualak aztertu ondoren. Ezker edo eskuinetara jartzea erabakitzen denean, leihoak baldin badaude, leihoekin alineatu edo zentratu egiten da. Leihorik ez dagoen kasuetan, errotulua hormaren ertzetik 200 mm. ra jartzen da. Ur-hodiren bat edo bestelako oztoporen bat dagoenean, tartea 500 mm.raino zabal daiteke.

b) Lehenetsitako tarte horretan oztopoak badaude eta bertan jartzerik ez badago edota urrutitik ikusteko moduan jarri behar bada, lehen eta bigarren solairuen artera jo daiteke, a) kokaeran egindako oharrei kasu eginez.

c) Sarrera nagusian ikusten ez delako edo bestelako arrazoiren batengatik beste horma batean jartzea komeni den kasuetan ere, a) kokaerako altuera-irizpideari egin behar zaio kasu, hau da, behe eta lehen solairuaren artean, altueran zentraturik.

La disposición izquierda, derecha o central dentro de ese espacio se decide en cada caso, una vez analizados los obstáculos de carácter estético o visual existentes. En los casos en los que se opte por una disposición lateral, si existen ventanas, el rótulo se alinea o se centra respecto a ellas. Cuando no las haya, el rótulo se coloca a 200 mm. del borde de la fachada. Si existe alguna bajante u otro tipo de obstáculo, esta distancia se puede ampliar hasta 500 mm.

b) Si en el citado espacio preferencial existe algún obstáculo o dificultad para la colocación del rótulo, o bien éste ha de ser visto desde una distancia considerable, se puede optar por la colocación del rótulo en el espacio comprendido entre la primera y la segunda planta. Se coloca siguiendo las pautas establecidas en a).

